

## Zer da arreta goiztiarra

### ZER DA ETA NORENTZAT DA

Zero (0) eta sei (6) urte arteko haurrei, haien familiei eta inguruneari zuzendutako esku-hartzeen multzoari esaten zaio arreta goiztiarra. Halako esku-hartzeen helburua zera da: ahalik eta azkarren erantzutea, osotara, **garapenean nahasmenduak dituzten edo garapenean nahasmenduak izateko arriskua** duten haurren premia iragankor edo iraunkorrei, aintzat hartuta **osasuna, hezkuntza eta arlo soziala**.

Garapenean nahasmenduak dituzten haurrek desbideratzeak dituzte garapenean **osasurekin edo harremanekin zerikusirik duten eta eboluzio biologikoa, psikologikoa eta soziala eragozten duten inguruabarren** ondorioz. Hainbat eratakoak izan daitezke nahasmendu edo trastornoak: **kognitiboak, mugimenduaren arlokoak, sentsorialak, emozionalak, jokabidearenak, hizkuntzari dagozkionak, orokortuak, adierazpide somatikokoak edo heldze-atzerapenak**.

Hona zein diren **garapenean nahasmenduak izateko arriskuan** dauden haurrak:

- a) **Arrisku biologikoan** dauden haurrak. Halako egoera batean daudela esango dugu, baldin eta beren **heldze-prozesua aldaraz lezaketen egoerak** bizi izan badituzte –hala nola, prematuritatea, jaiotza-pisu eskasa izatea edo jaiotzean anoxia izatea–, bai eta **sortzetiko gaixotasunak** edo **gaixotasun hartuak** edo **nahasmendu genetikoak** badituzte ere.
- b) **Arrisku psikosozialean** dauden haurrak **gizarte-baldintza ez oso egokietan bizi** dira: besteak beste, gurasoek eta familiak ez dituzte zaintzen edo haiekin ez dute elkarreragin egokirik edo tratu txarrak edo abusua jasan dituzte; izan ere, halakoak heldze-prozesua aldaraz dezaketen egoerak dira.

Zerbitzu hori doakoa izango da.

### HELBURU ESPEZIFIKOAK

- a) Bigarren mailako edo nahasmendu bati edo arrisku handiko egoera bati lotutako urritasunak edo defizitak **ager daitezen saihestea edo murriztea**.
- b) **Murriztea** urritasun edo defizit batek haurraren gain dituen **eraginak**.
- c) Haurraren **garapena optimizatzea**.
- d) **Konpentsatzeko, oztopoak ezabatzeko** eta premia espezifikoetara **egokitzeko** beharrezkoak diren **mekanismoak** sartzea.
- e) **Familiaren eta** haurra bizi den **ingurunearen premiei** eta eskaerei arreta jarri eta erantzutea, hala **giza** ingurunean –familia eta ohiko beste zaintzaile batzuk, bai eta profesionalak ere– nola ingurune **fisikoan** –familiaren edo erakundearen etxea, ikastetxea, osasun-zentroa, ospitalea, gizarte-zerbitzuak, espazio publikoa–.



# Betekizunak eta eskabidea

## ESKU-HARTZEA JASOTZEKO BALDINTZAK

- a) **0 eta 6 urte** artean izatea.
- b) **Bizkaiko Lurralde Historikoan errolatuta** egotea eskaera egiten den egunean.
- c) **Diagnostikatua** izatea garapenaren nahasmendu fisiko, psikiko edo zentzumenezko bat, edo nahasmendu hori izateko arriskuan egotea, prematuritatea, sortzetiko nahasmenduak, faktore psikosozialak edo bestelako kausak direla medio.
- d) Arreta goiztiarreko esku-hartze sozialeko zerbitzuak behar izatea Bizkaiko Lurralde Historikoko arreta goiztiarreko balorazio-taldeak (AGBT) egindako ebaluazioaren arabera.

## ESKABIDEA

Haurren gurasoek edo, bestela, haurren **legezko ordezkariak** egin behar dute.

Eredu normalizatuaren arabera bete behar da eskabidea, eta leku hauetan aurkeztu ahal izango da:

- a) Zuzenean Bizkaiko Lurralde Historikoko Arreta Goiztiarreko Balorazio Taldean, [Bizkaiko Foru Aldundiaren erregistroetan](#), bai eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 16.4 artikuluan ezarritako moduetako edozeinetan.
- b) Euskal Osasun Sistemako haurrei arreta emateko zerbitzuetan.
- c) Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako zentroetan eta berritzeguneetan.
- d) Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan.
- e) Haurreskolak partzuergoaren mendeko haur eskoletan, eta udalen mendekoetan.

Eskabidearekin batera, **dokumentu** hauek aurkeztu beharko dira:

- a) Familiaren errolda-ziurtagiri eguneratua.
- b) Haurren NANaren edo familia-liburu osoaren fotokopia edo Erregistro Zibileko inskripzioaren fotokopia.
- c) Aita, ama edo legezko ordezkariaren NANaren fotokopia.
- d) Haurra osasun- edo hezkuntza-sistematik edo beste gizarte-zerbitzu batzuetatik bideratzen denean, bideratze-formularioa.
- e) Arreta goiztiarreko ebaluazioa egiteko garrantzitsuak diren txosten teknikoak. Dena dela, lehenengo hitzorduan aurkez daitezke txosten osagarriak (medikoak, sozialak, psikologikoak, pedagogikoak).

[Araudia eta inprimakiak](#)



## Arreta goiztiarraren beharraren ebaluazioa.

AGBT –Arreta Goiztiarreko Balorazio Taldea– kide anitzeko organo bat da, **osasan-sistemako, hezkuntza-sistemako eta gizarte-zerbitzuen sistemako profesional adituek** osatua, eta elkarren artean koordinaturik lan egiten dute, kasuak ebaluatzen eta proposamen teknikoak egiten. Besteak beste, eginkizun hauek dagozkie: kasuari buruzko garrantzizko **informazioa biltzea**, haurren eta beren familien **beharrizanak ebaluatzea** eta **arreta-plan pertsonalizatua prestatzea**.

AGBTaren barruan, **arretaren koordinatzaile bat** izendatuko da. Hark egingo die harrera umeari eta haren familiari, eta bera izango da erreferentea, bai familiarentzat, bai haurren arretaz arduratzen den arreta goiztiarreko esku-hartze taldearentzat.

## Esku-hartze sozialeko plana arreta goiztiarrean

Arreta goiztiarreko gizarte-zerbitzua emateko ebazpenari **esku-hartze sozialeko plana** arreta goiztiarrean erantsiko zaio, eta arreta goiztiarreko esku-hartze taldeak plan hori aplikatu behar du haurrarekin, haur horrentzat Bizkaiko Foru Aldundiarekin **itunduta** dauden zentroen artetik tratamendu horiek eskaintzen dituelako **aukeratzen** den zentroan.

Zentro horietan, **arreta goiztiarreko esku-hartze taldeek** (AGET) **diziplinarreko arreta terapeutikoa** ematen diete haurrari, haren familiari eta inguruneari.

AGET bakoitza **arlotan psikosozialeko profesionalak** osatuko dute, eta zerbitzu hauek eskainiko ditu: psikomotrizitatea, psikoterapia, fisioterapia, logopedia, gizarte-lana, psikopedagogia, psikologia, terapia okupazionala, gizarte-hezkuntza eta haurren garapenerako egokitutako josten diren beste batzuk.

## Arreta goiztiarraren amaiera

Honako **arrazoi hauengatik utziko zaio** arreta goiztiarreko esku-hartze **zerbitzua emateari**:

- a) Arreta-plan pertsonalizatuan finkatutako **helburuak betetzea**.
- b) Gurasoek edo, bestela, legezko ordezkariak **berariaz adieraztea** zerbitzua **amaitzeko borondatea**.
- c) **6 urte** betetzea.
- d) **Ez betetzea** zerbitzua behar bezala emateko ezarritako **arauak**.



# ZER URRATS EMAN BEHAR DA ARRETA GOIZTIARREKO ZERBITZURA SARTZEKO?

1. **Eskaera** egiten da:  
Zer agiri aurkeztu behar dira?  
Erroldatze-ziurtagiria, NANaren eta familia-liburuaren fotokopiak. [Zehastasuna](#)  
Non aurkeztu behar da?  
Bizkaiko Foru Aldundiaren [bulegoetan](#) [www.bizkaia.eus](http://www.bizkaia.eus) weba erabiliz; udaletako oinarritzko gizarte-zerbitzuetan, eta Osakidetzaren edo Hezkuntzaren bidez.
2. **Hitzordua** jartzen da haurra ikusteko.
3. Foru Aldundiak **haurraren beharrezkoen ebaluazioa** egiten du, osasuneko (Osakidetza) zein hezkuntza-arloko profesionalekin koordinatuta, Arreta Goiztiarreko Balorazio Taldea (AGBT) eratzten baitute.
4. **Esku-hartzeko plana** emango zaio familiari (beharrezkoa bada gizarte-zerbitzuek esku hartzea), bai eta eskura dituen **haurren garapeneko zentroyen** zerrenda ere.
  - Haurren garapeneko zentroa **familiak aukeratu dezake**.
  - Arreta goiztiarra **doakoa** da esku hartzeko planean jasota badago.
  - Haur bakoitzak **koordinatzaile** bana izango du esleituta.
5. Haurraren bilakaeraren **jarraipena** egingo da AGBTn (Aldundia, Osakidetza eta Hezkuntza), Esku-hartze Taldearekin (AGET) batera koordinatuta.  
Aldian-aldian informaziorako eta trebatzeko saioak egingo dira familiekin (**GURASO ESKOLA**).
6. Zerbitzuaren amaiera:  
Zerbitzua amaituko da haurra hobetu egin delako, behar duen arreta beste arlo batzuetatik (osasuna eta hezkuntza) jasotzen duelako, familiaren borondatea delako edo 6 urte bete dituelako.  
**Beste sistema batzuetarako trantsizioa egiten lagunduko zaie**, haien arreta jasotzeko.